Euskal Herriko bertsorik ederrenak, "Orixe"ren aburuz

Eritziak eritzi, bururik haina aburu, gure esaera zaharrak dionez. Nikolas Ormaetxea "Orixe" idazle ospetsuaren eritziz J.B. Elizanbururen "Besta biharamuna" deritzaien bertsoak dira ederrenak. Hala agertzen bai zuen **Euskaldunak** (1950) poemaren 150. orrialdean, honako ohar honekin: "Elizanbururen "Besta biharamuna" nere txiki denboran, Euskalerri osoan zabaldu zan, bai gipuzkeraz bai bizkaieraz, apur bat aldatuta. Bertsu ok ez dira alperrik Euskalerrian egin diran ederrenak".

Oso zabalduak zirela eta bizkaieraz ere kantatzen ziren lekukotasunik nik neuk ere ba dut. Lehenago ere aipatua dutan bezala, Eibarko kalean eibartarrez jaso izan dut eta nork esan gure herriko zaharrei bertako kanta jatorra ez denik? Duela urte bete oraindik Ermuko Elorreta baserriko bati entzun nion bertakotzat kantatzen.

Bertsorik ederrenak direla ziurtatzea ordea ezta txantxetako gauza, "Orixe" berak hala bazion ere. Dena dela, aldez aurretik argi utzi dezadan bertso horiek ez direla bat-batekoan kantatuak, paperean idatziak baizik. Eta gauza oso desberdina da bapatekoan arituz sortuak izatea edo paperean idatziz asmatuak izatea.

Bi motatako horiek, egituraz berdinak izanik ere, alde handia dute elkarren artean eta harrigarria badirudi ere, hitzetik hortzera batbatean sortutako askok ez diote zorrik jirabuelta askoren ondorean paperean jarritakoeri. Hargatik du gure bertsolaritzak bere grazia berezia, inork asmatu lezazken bertsorik onenak edo onenetakoak bapatean asmatzea, segundu batzuk lehenago bertsolaria behartu izan den gai batean.

Elizanbururen "Besta biharamuna" deritzaionetan joko kontua dator aitzaki, baina emakumezko jokolariei begira dagoen agurean irudia bera ezta batere txarragoa.

Iragan besta biharamunean,
berek dakiten xoko batean,
lau andre: hirur mutxurdin, bat alarguna
jarririk itzalean,
harri txabal bat belaunen gainean,
ari ziren, ari ziren trukean.

Zer ote duten nik jakin nahi
pitxararekin bertze jaun hori;
zorroa du biribila, moko mehea,
tente xutik egoki:
xahako bat ote-den nago ni,
hanpatua, hanpatua ederki.

Truk jokoa arrera eta xahakoa (zatoa) desanpatuz beheraka zijoan neurrian hark emango zituen lanak, bere deabru ispirituarekin. Bosgarren bertsotik partida bizkortzen da eta berotuala nor egon zintekean gezurrik gabe?

Seina truk dirade zazpietatik,
tantoz ere bardin bi aldetarik;
xahakoa eroria mokor ipurdi,
naski odolaz usturik;
kuiattoa han dake etzanik
azken-hatsa, azken-hatsa emanik.

—Gezurrik gabe goazen, Maria,
eman ba jokoan ezti-eztia;
hurbil zan untzi beltz hori, edan dezagun
trago bat edo bia;
bihotza diñat epeltzen hasia;
harek zuen, harek zuen grazia!

Zahagiaren seme ioria,
nun duk aixtiko zorro lodia?
Gaisoa! Lehen-birundan xurkatu dautek
odolaren erdia.
Hor hago orai, zimurrik aurpegia,
kokoriko, kokoriko jarria.

Nahiz eta zeraukatan azken-eskua,
Mariak hasi zuen gudua.
—Truk-. Jo zan. Mariak xango,
Katixak zaldun,
Marixumek hirua.
—Mari Martin, zoratu zain burua:
lauarekin hiruaren keinua —.

Hortik aurrera hasten da gaiaren benetako "festa", elkarri mintzoa zorroztuz, ez hitz leunez baina bai hizketa jolaskorrez. Alajaina! Euskaraz ez dela irainik eta biraorik? Ba, hori ere ezta egia osoa.

Agure Martinek, bere filosofia zaharretik ondo ikasia bazuen ere, emakumezkoen haserreetan begirale soila izatea, gizajoa ez zen libratu hango zartatekoetatik.

Jostagarri, alai eta bizi eramanak dira bertsoak, eta egileak, azken errematez, Akelarrez sinbolizatzen du han altxatu zen zalaparta:

Herriko besta arrats-apalean,
lau gatu zahar Angelus-ean:
bat maingu, hirur saltoka, sorginak puies!
zohatzila bidean;
nik ikusi ditut amets batean
Akelarre, Akelarre gainean.

Juan SAN MARTIN

El renombrado escritor Nicolás Ormaechea "Orixe", en la primera edición del poema ***Euskaldunak****, en la nota que puso al pie de la página 150, hacía la afirmación de que las estrofas tituladas "Besta biharamuna" del poeta labortano J. B. Elissamburu constituían las más hermosas de Euskalerría. Por mi parte no me atrevería a tal afirmación, sin negar la valía de dicha composición. Hay que reconocer que las valoraciones poéticas siempre se prestan a las apreciaciones subjetivas.*

No cabe duda de que las estrofas de "Besta biharamuna" (El día siguiente de la fiesta) están magistralmente estructuradas y el tema muy bien llevado, impecable en forma y contenido, sin que abarque conceptos profundos o de alto alcance como aportación del pensamiento humano. No se las puede negar agudeza descriptiva. Pero el tema es sencillo, abordado y desarrollado en torno a un determinado ambiente que reina en el juego de naipes pero que va más allá de la simplicidad de un mero juego para tocar las fibras sensibles del aspecto humano y psicológico. Pero, quizá, lo más valioso y lo que le sitúa entre las composiciones de extraordinario nivel son el juego de palabras que
usa más la riqueza lexical y de imágenes a
largo de las trece bien nutridas estrofas de
composición.

Estoy totalmente de acuerdo con An
Mª. Labayen cuando llega a decir en
***Compendio del poema Euskaldunak** de "Ori*
(1950), al referirse a la inclusión de can
populares en dicho poema, que, "Es tal la
queza del cancionero vasco en este género,
el poeta culto dejando sosegar a su estro
querido rendir especial homenaje a esa po
popular incluyendo íntegras..." y que "... sin
modo de una antología del anacreontismo
kalduna". Donde no puedo estar tan
acuerdo, y por tanto disiento, pero sin embargo
comprendo situando en aquel contexto
1950, por el impacto producido y la carga em
cional que llevaba consigo, que le llevó a dec
que la obra del poeta Elissamburu era
"pieza que por su i ,enio, naturalidad y viv
puede arrostrar la comparación con las m
acabadas creaciones poéticas de la literatu
universal" (páginas 49 y 50). Nos conforma
mos con menos y mientras sepamos apreciar
casa nos servirá de consuelo porque significa
que nuestra lengua sigue viva. Por desgracia
la referida composición, cantada en
tiempo por toda la geografía del país, hoy
un tanto olvidada y hoy, en nuestro ambiente
bersolari, he querido rendirle un recuerdo. El
interesado, aun aquel que no sepa vascuence
podrá leer en las reediciones hechas por Edit
rial Auñamendi del poema ***Euskaldunak*** *c*
versión castellana del propio autor, existiendo
ediciones económicas y de lujo.

Lo que sí debe quedar muy claro es, que
dicha composición de Elissamburu es una cre
ción escrita y que por tanto dista mucho de
creación improvisada del bersolari. Y aunque
nos parezca increíble, hemos de manifestar que
las mejoras obras surgidas de la improvisación
(tratándose de modalidad y técnica del bersol
rismo) no desmerecen de las mejores prepar
das por escrito. En ello radica el mérito y
virtud de nuestros bersolaris.

Metalgintza Euskalherrian

Metal ezagutuenen izenak euskaraz urrhea (Au), zilharra (Ag.), burdina (Fe) ta beruna (Pb) dira. Hauietaz bertzalde ba dagotza bertze izen batzu, guztien bidez izen hauien etymonak eta metalgintzaren ethorkia azter genezake. Bizkaian burdinaren traktatzeko ziarolhak edo zidar-olhak dagotza, bainan hauietan ez da **zidarra** (Ag) traktatzen, zilhar izenean bizkaiarazko formak sinhistaraz liezakun bezala. Aitzitik hemen **zidarra = burdina** da. Halakotz zidar hitzaren etymona eta garaikarazko sidêros hitzaren erran-nahia berdina da. Huntaz gainera ba dakigu garaikarazko dialekto dorikoaz eta akhaioaz haren forma **sidar(os)** zela. Hitz huntatik sidêrurgia ethorten da, burdingintza alegia. Nola burdinaren aphailatzea Aintzin-Asian asmatua zela, hala metalgintza hunen izenak bethi gureaz elkharkilaturik dagozke. Herri hauietan jakintzaren eta mageiaren hizkuntza bethi sumerkara izan da. Hizkuntza huntaz burdinaren izena **an-bar** edo **bar-gal** da. Hitz hunen akkadiarazko forma **parzilu** zen, zeintan **ilu = jainko** bait da, eta **parz = metal**. Azken hitz huntan' **parz** eta euskarazko **pertz, bertz** eta **phertz** hitzak erran nahi berdineko dira. Sumer karaz **an** hitzaren erran-nahia **zeru, ortze** ta **urzi** da. Beraz sumertarrentzat burdina (an-barra) zerutik ethorritako metal jainkozkoa zen. Gaur egunean euskaraz **bertz** metallezko ontzi baten izena da, bainan hitz hunen etymonak erraiten deraukunez hemen quid pro quo bat dago, metalaren izenak bere forma ontziari eman derauko, zeintaz hau egina bait zen. Halakotz **pertz** ethorkiz **metala** edo **bronzea** izan zatekeen.

Bertze metalen izenak euskaraz **urrhaida** ta **zirraida** liratezke. Urrhaida (Cu) metalaren izendatzekotz **kupur** forma ere erabilten da; hemen latinezko **cuprum** izena dugu. Eta **zirraida** (St) euskaraz **ezteinu** ere izan da. Bi izen haukiek **—aida** elementua dute; beraz **askazi.** Garaikarazko izenetan zirraidaren forma **kassiteros** da, eta izen huntan **kas** eta **siteroz** dugu. **Kas** euskarazko **asKAZia** hitzaren equivalenta ta itzulpena da. Urrhe elemenduaren izena garaikaraz **khryssos** da. Izen huntan **Khurâsu** hitz akhadiarazkoaren mailegua dugu.

Metalgintza Mesopotamian asmatu zuten, eta huntan siderurgia hettitek. Eta orain daigun bezala lehen epokhan metalurgoak bethi nomadak izangabe herriz-herri joaiten ziren gizonen leinu berhezi bat, eta behar bada ethno bat izan ziren. Gaur gaur egunean Asiaren eta Afrikaren toki askotan den beza. Hunela ere handik Euskalherrira lehen metalurgoak ethorri dirateke, eta lekhu batzuetan geratu dira, edo eskualde batzu populatu dituzte. Halakotz epokha zaharretan mapa ethnographikoak Europan ere, gaur egunean Afrikan eta Asian diren bezalakoak izan zirateken.

Mapa hauietan bethi ethno bat aurkhezten duen kolorearen gainean, bertze koloreak zipristinak bezala dagotza, eta hor herri baten barruan bertze ethno batzu' talde berheiziak bezala bizi direla erakhusten dute. Eta huntara ere lehen ethnoaren zipristinak bertze lekhuetan ditugu. Nola gaur egunean, hunelako egokera baten azken aztarnak Asturietan mintzo diren "xirkak" izan litezken. Asturietako jargoi hauietan gaur egunean grammatikêa española da, bainan hitzik asko euskarazkoak. Batez ere Llanes hiriaren inguruetan mintzatzen dira haietaz. Eta nola euskarazko hitzik asko dituten **xirika** hauk' euskal ethorkiko genteen zipristinak izan ditezken, halata ere askotan pentsatu ukhan nuen, ezen Euskalherrian, batez ere graikoek Karistiak eta Autrigoinak bizi ziren herrialdetan bertze zipristin ethnikoak eduki ukhan ditugula. Hemen batzuetan, eta hau toponymiko zaharrenetan gerthatzen dela nabaritzen zaiku, euskararen bidez ezein ere etymon ez duten izenak ditugu. Hauietan GORBEA izena legoke. Izen hunentzat ez dugu euskaraz etymon gabi ba. Bainan haren erran nahia sumerkaz hauxe izan liteke: GOR = mendi eta BENA Kaukazeko hizkuntzarik askotan **oihanez betherikako aldapa** da beraz GORBEAren itzulpena euskaraz **oihanez betherikako aldapak dituen mendia** dateke. Bainan huntaz gainera, mendi hunen hegoirantza dagoen eskualdean' antxinadanik Mesopotamian asmatu metalgintzaren tekhnêan emplegatzen ziren labak ere ba zituzten, eta horko inguruetan sumerkazko etymona eduk lezaketen bertze toponymoak ere ba legozke. Adibidez: **Maurga**, sumerkaraz **murgu = muga: Murua =** sum. **erdia, zentroa,** eta herri hau' haran hunen zentroan dago, geroz hegoiratago: **Oto goikoa** ta**Oto beherea** dagotza. Hemen behar bada, hypothesian **oto** sumerkaraz **utun = laba** izan liteke. Herri hauietako populua geroz emigratu zen, eta assimilatu.

Metalgintza' bethidanik mystêrioaz betherikako ekhintza izan da, gaikoentzat Samothrakê izeneko uhartean mystêrio zaharrak praktikatzen ziren, erraiten zutenez oso zaharrak eta indoeuroparrak Helladara ethorri baino lehenagokoak omen ziren, Pelaskoek asmaturik. Eta bertze mystêrio pre-hellenikoak Korybante, Daktylo eta Kureta izeneko jasek asmatuak ziren, eta metalgintzaren lanei zegozkien. Geroz Erdi Aroan' gehienetan Alexandriritik Alkhêmia zabaldu zen, eta kasu huntan' bethi bi metalen trasmutasionearen ardiestekotz praktikatzen ziren: khrysopoeia' urrhearen bilha, ta argyropoeia' zilharraren bilha. Eta nola Platônek bere
dialogo Kritias eta Timaios izenekoetan
Atlantidari buruz mintzatu bait zen, zeintan
erraiten bait zuen, ezen herri huntako jaure
giak urrhez, zilharrez eta orikhalkoz perilha
latu zirela, halatan Epokha Modernoan
Khristobal Kolonek Mundu Berria aurkhitu
zuenetik, Europatik nautak, metalginak eta
aventureroak' legendetan aiphatzen ziren he
rrialde mataldunen bilha joan ziren, eta
hauietan euskaldunak batzuetan urrh
(Mexiko), edo zilhar (Bolivian) zegozelakotz

Federico KRUTWIG SAGREDO

La existencia de estos nombres de origen
bilonio me hizo pensar en la existencia de una
casta o ethnia de metalurgos que en épocas
prehistóricas se haya desplazado como
ethnias itinerantes (no nómadas) que aún hoy
en día en Africa practican la profesión de
rrones y metalurgos. Esto además me parece
confirmado en Euskalherria por la existencia
de una serie de nombres, sin duda alguna
los más antiguos, como son los de montañas
especialmente en tierras caristias y autrigonas
que no tienen una etimología vasca, pero
una sumeria, como es el caso de GORBEA
que en vasco nada quiere decir, pero que en
nerio significa GOR = Qur = montaña *y*
en lenguas caucásicas significa ***boscosa****, por*
que ***Gorbea*** *sería* ***la montaña de las laderas***
boscosas. *Así pues, es posible que en*
épocas prehistóricas un mapa étnico de
kalherria se hubiese asemejado a
Africa o Asia, en que vemos que cada
que indica una etnia está salpicada con el
de otras, y que aquélla a su vez salpica el
torio de otras. Al Sur del Gorbea hay
una serie de pueblos cuyos nombres
ser sumerios como MURUa = centro
Maurga, Murga en sum murgu = límite,
tera.